

2025eko Legorretako Herri Jai Egitaraurako Portada Lehiaketa

1. Lehiaketa honetan adinez nagusia den edozein legorretarrek har dezake parte.
 2. Informatika euskarrian (Pendrive edo Cdan) aurkeztu ahal izango da kartela edo paperean inprimatua.
 3. Formatuak, nahitaez karratua izan behar du (210*210mm, 3 milimetroko sangria eta 300eko erresoluzioa).
 4. Teknika librea izango da.
 5. Kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute: **LEGORRETAKO AZINTZIO JAIK 2025.**
 6. Jai horren ezaugarriren bat, irudiren bat edo lemaren bat jaso eta adierazi beharko da.
 7. Ez da hizkuntza eta irudi sexistarik onartuko. Genero berdintasuna ikusarazi edo sustazen duten irudiak positiboki baloratuko dira.
 8. Irabazleak Legorretako Aulia Sagardotegian bi lagunentzako afaria jasoko du.
 9. Aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa bat egin ahal izango da.
 10. Egilearen nortasuna azaldu gabe eta atzealdean lema bat duela aurkeztu behar dira kartelak. Hau euskara hutsezkoa izango da.
- Horrekin batera, gutun-azal itxi batean lema bera eta egilearen datuak adieraziko dira.
11. Kartelak **2025eko apirilaren 2ko 14:00ak baino lehen**, Legorretako udaletxean edo emailaz aurkeztu ahal izango dira: udala@legorreta.eus
 12. **Herriarren bozketaren bidez** aukeratuko da kartelik onena.
 13. Saritzen den lana Udalaren esku geldituko da eta **jaietako egitarauaren azalean** agertuko da.
 14. Saritu gabe geratu diren lanak erakusketaren azkeneko egunetik hasi eta 15 eguneko epean jaso ahal izango dira Legorretako Kultur Etxean.
 15. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du.